

Eskola-jazarpenaren arrisku- eta babes-faktoreak ikuspegi biopsikosozialetik: berrikuspen narratiboa (*Risk and protective factors of bullying from a biopsychosocial perspective: narrative review*)

Lierni Tolosa¹, Nerea Lertxundi Iribar^{*1,2,3}, Ane Arregi^{1,2}, Izaro Babarro^{2,4}

¹ Psikologia Fakultatea, UPV/EHU

² Biogipuzkoa Osasun Ikerketako Institutua (20014 Donostia-San Sebastian)

³ Epidemiologia eta Osasun Publikoko ikerketa biomedikoen zentroen sarea (CIBERESP),
28029 Madril

⁴ Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, UPV/EHU

LABURPENA: Eskola-jazarpena haurtzaroan ohikoena den jokabide agresiboa da, eta ikasle batek beste ikasle baten ekin-tza negatiboak modu iraunkorrean eta berariazkoan jasaten dituenan edo horretarako arriskua duenean gertatzen da. Gai-nera, eskola-jazarpenaren prebalentzia eta inpaktua kontuan hartuta, osasun publikoko arazotzat jo dute zenbait adituk. Zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoan haurren % 16,8 biktima, erasotzaile edo erasotzaile-biktima direla balioesten da. Bestalde, haur eta nerabeen ongizate eta garapenean ondorioak eragin ditzake, besteak beste, funtzio exekutiboen garapen urriagoa eta arazo afektibo-emozionalak. Ildo horretan, lan honetan jaso dira eskola-jazarpena agertzeko probabilitatea area-gotzen edo murrizten duten aldagai biologiko, psikologiko eta sozialak. Hala, sexua, adina eta hormonak dira eskola-jazar-penean eragin dezaketen aldagai biologikoak. Era berean, arrisku- edo babes-faktore izan daitezkeen aldagai psikologikoak dira zailtasun kognitiboak, gaitasun sozialak, adimen emozionala eta egokitzapen soziala, autoestimua, enpatia eta erresi-lientzia. Aldagai sozialei dagokienez, azkenik, eskola-aldagaiak, familia-aldagaiak, komunitatea eta maila sozioekonomikoa daude; baita bestelakoak ere, hala nola ariketa fisikoa, obesitatea edo sexu- eta genero-identitatea. Hortaz, eskola-jazarpena-ren prebentzioa eta esku-hartzea hobetzeko, beharrezkoa da kausazko harremanak ezarri ahal izateko ikerketa-diseinuak era-biltzea, baita aldagaiei arteko elkarrekintzak aztertzea ere.

GAKO-HITZAK: eskola-jazarpena, arrisku- eta babes-faktoreak, psikosoziala, familia, hormonak.

ABSTRACT: Bullying is the most common aggressive behaviour in childhood, and it occurs when a student consistently and intentionally experiences negative actions from another student or is at risk of such actions. Furthermore, considering the prevalence and impact of bullying, some experts have classified it as a public health issue. Specifically, in the Basque Country it is estimated that 16.8% of children are victims, aggressors, or bully-victims. Moreover, it can have consequences on the well-being and development of children and adolescents, including poor development of executive functions and affective-emotional problems. In this sense, this study identifies biological, psychological and social variables that affect bullying. Thus, the biological factors that can influence bullying include sex, age and hormones. Psychological factors that may be risk or protective factors include cognitive difficulties, social skills, emotional intelligence and social adaptation, self-esteem, empathy and resilience. As for social factors, school factors, family factors, community factors and socioeconomic status are considered, as well as other factors such as physical activity, obesity and sexual and gender identity. Therefore, to improve prevention and intervention of bullying, it is necessary to use research designs that allow for the establishment of causal relationships, as well as to examine the interactions between these variables.

KEYWORDS: bullying, risk and protective factors, psychosocial, family, hormones.

*** Harremanetan jartzeko/Corresponding author:** Nerea Lertxundi Iribar, Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia Saila, Psikologia Fakultatea. <https://orcid.org/0000-0002-7344-4433>, nerea.lertxundi@ehu.es

Nola aipatu/How to cite: Tolosa, Lierni, Lertxundi Iribar, Nerea; Arregi, Ane; Babarro, Izaro (2025). «Eskola-jazarpenaren arrisku- eta babes-faktoreak ikuspegi biopsikosozialetik: berrikuspen narratiboa», *Ekaia*, 48, 2025, DOI: <https://doi.org/10.1387/ekaia.27532>

Jasoa: maiatzak 10, 2025; Onartua: uztailak 04, 2025

ISSN 0214-9001-eISSN 2444-3225 / © UPV/EHU Press



Lan hau Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia baten mende dago

1. SARRERA

Jokabide agresiboa beste norbait modu intentzionalen mintzeko portaera da [1]. Hain zuzen, agresioak ingurunera egokitzea ahalbidetzen du hein batean, eta, beraz, oinarritzkoa da. Ildo horretatik, haurtzaroan gertatzen den jokabide agresibo ohikoena *bullyinga* da. Fenomeno horren ikerketan aitzindaria den Dan Olweus-en arabera [2], eskola-jazarpena gertatzen da ikasle batek behin eta berriz eta denboran zehar beste ikasle baten edo batzuen ekintza negatiboak jasaten dituenean edo horretarako arriskua duenean. Hala, hiru ezauzgarri nagusi ditu *bullyingak* [2]: lehenik, nahita eragindakoa da; bigarrenik, denboran zehar errepikatzen da; eta, azkenik, botere-desorekan oinarritzen da, hau da, biktimak bere burua defendatzeko zailtasunak dituela hautematen du.

Sailkapenari dagokionez, bi jazarpen mota daude: zuzena eta zeharkakoa [2]. Forma zuzena beldurtzea, umiliatzea eta gutxiestea lirateke; aldez, zeharkakoa, besteren ospe edo estatus soziala suntsitu nahi izaten da [3]. Eskola-jazarpeneko rolei dagokionez, lau aktore nagusi daude. Erasotzaileak nagusikeria erabiltzen dutenak dira [4]. Biktimak, berriz, nagusikeria jasaten dutenak [5]. Erasotzaile-biktimak biktimizazioari modu agresiboan erantzuten diote [6]. Azkenik, behatzaileak lekukoak dira, eta erasoak babestu, gaitzetsi edo ukatu egin ohi dute [4].

Era berean, gaur egun eskola-jazarpenaren beste aldaera bat ere areagotzen ari da: *ziberbullyinga*. Teknologiaren erabilpenaren ondorioz, erlazionatzeko eta komunikatzeko moduak aldatzen ari dira [7]; beraz, gero eta ohikoagoa da mezu gogorrak, argazki lotsagarriak edo zurrumurruak zabaltzeko baliabide digitalak erabiltzea [4]. Hala, askotan, jazarpen tradizionala eta ziberjazarpena gainjarri egiten dira, hau da, aldi berean gertatzen dira [7].

Eskola-jazarpenaren prebalentziari dagokionez, zenbait ikerketa egin dira arazoaren dimentsioa ezagutzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko 9-13 urte bitarteko haurrekin egindako ikerketa baten arabera, % 13,2 biktimak dira, % 1,6 erasotzaileak, % 2 erasotzaile-biktimak eta % 23,2 maiztasun handiz lekuko izan ohi dira [8]. Emaita horiek Espainia mailan eta nazioartean egindako beste ikerketa batzuen antzekoak dira [9-12].

Gainera, fenomeno horrek ondorio nabarmenak ditu haurrengan, haien bizi-kalitatea eta ongizatea murrizten baititu [13]. Adituen arabera, jazarpenaren biktima izatearen ondorioz garunaren hainbat gune aldatu egiten dira, hala nola kortex prefrontala eta hipokanpoa [14]. Era berean, arazo afektibo-emozionalak ager daitezke, besteak beste, antsietate-nahasteak, jokabide-nahasteak, somatizazioak, depresioa eta trauma osteko estres-nahastea [15]; kasu larrietan, ideazio suizida eta suizidio-saiakerak ere gerta daitezke [16]. Bestalde, nahiz eta fenomenoaren ondorio neuropsikologikoak izan diren gehien aztertu direnak, ikerketek erakutsi dute *bullyingak* eragin nabarmenak dituela haur eta nerabeen osasun fisikoan, baita arlo sozial eta akademikoan ere. Arlo fisikoari dagokionez, sintoma

somatikoak, estres-sistemaren alterazioak eta hantura kronikoa ager daitezke [17, 18]; arlo sozial eta akademikoan, berriz, eskola-egokitzapenean zailtasunak eta harreman sozialen pobretzea nabarmendu ohi dira [17]. Hortaz, eskola-jazarpenaren prebalentzia eta inpaktuaren jakitun, zenbait adituk osasun publikoko arazotzat jo dute [13].

George Engel izan da eredu biopsikosozialaren aitzindarietako bat [19]. Haren arabera, esperientzia goiztiar, aurretiko eta egungoek gaixotasunekiko zaurgarritasuna alda dezakete [20]. Ildo horretan, jokabide agresiboan eragiten dute aldagai biologiko, psikologiko eta sozialek eta horien arteko elkarrekintzek ere, eta azalpen bereziek bakarrik ez dute azaltzen gure espezieak indarkeriazko jokabideak izateko duen joera [21, 22].

Hala, lan honen helburu nagusia izan da eskola-jazarpenaren literaturaren berrikuspena egin eta fenomenoan eragin dezaketen arrisku- eta babes-faktoreak identifikatzea, ikuspegi biopsikosoziala baliatuta. Haur eta nerabeen garapenean eta ongizatean jazarpenak duen inpaktua ikusita eta prebalentziaren jakitun, funtsezkoa da aldagai horiek ezagutzea prebentziarako eta esku-hartzerako.

2. METODOLOGIA

Artikuluen bilaketa egiteko zenbait datu-base erabili dira; horien artean, *Pubmed*, *Psycinfo*, *Psychology and Behavioral Sciences Collection*, *Web of Science*, *Uztaro* eta *Dialnet*. Era berean, bilaketak egiteko, nagusiki honako hitz gako hauek erabili dira ingelesez, gazteleraz eta euskaraz: «arrisku- eta babes-faktoreak», «eskola-jazarpena», «psikosoziala», «familia» eta «hormonak».


Behin bilaketak eginda, artikulua aukeratzeko inklusio- eta esklusio-irizpide batzuk zehaztu dira. Hona hemen irizpideak:

1. taula. Inklusio- eta esklusio-irizpideak.

Inklusio-irizpideak	Esklusio-irizpideak
Eskola aroko (6-12 urte) edo/eta nerabezaro (12-18 urte) lagina izatea, prebalentzia altuena adin-tarte horretan baitago.	Eskolaurrea (0-6 urte) edo helduak (>18 urte).
Azken 15 urteetan egindako ikerketak.	Duela 15 urte baino lehenago egindako ikerketak.
Bullyinga edo/eta ziberbullyinga neurtzea.	Beste arazoekin komorbiditateak izatea neurgai (depresioa, suizidioa...).
Nazioarteko nahiz bertako ikerketak.	Eskola-jazarpena ez den beste agresio edo jazarpen motak neurtzea.
Ikerketa-diseinu anitzak (luzerakoak, berrikuspenak, zeharkakoak...).	

3. ESKOLA-JAZARPENAREN ARRISKU- ETA BABES-FAKTOREAK

Sarreran aipatu bezala, giza portaera ulertzeko beharrezkoa da prozesu biologiko, psikologiko eta soziokulturalak aintzat hartzea [19]. Horregatik, lan honetan, eskola-jazarpenaren arrisku- eta babes-faktoreak eredu biopsikosoziaren arabera taldekatu dira (1. irudia): aldagai biologikoak, psikologikoak eta sozialak.



1. irudia. Eskola-jazarpenaren arrisku- eta babes-faktoreak eredu biopsikosoziaren arabera.

3.1. Arrisku- eta babes-faktore biologikoak

Sexua eta adina

Sexu biologikoa neskak eta mutilak desberdintzen dituzten ezaugarri fisiko-biologikoetan oinarritzen da. Sexu-ezberdintasunak aztertu dituzten ikerketen emaitzak askotarikoak dira, baina, oro har, ikusi da mutilek gehiago parte hartzen dutela bullyingean, edozein roletan [4, 5, 11, 23]. Hori azaltzeko zenbait arrazoi daude; horien artean, neskak pertzeptiboagoak, enpatia gehiago dutenak eta adimen emozional handiagoak direla [16], edo mutilek hormona androgenoen presentzia handia-

goa dutela [22]. Bullying motaren arabera ere ikusi dira desberdintasunak. Zehazki, ikerketek erakutsi dute mutilek jazarpen fisikoa sarriago jasaten dutela [24] eta neskek, berriz, bullying soziala eta psikologikoa pairatzeko joera handiagoa dutela [15, 25, 26].

Adinari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa baten arabera, eskola-jazarpena ohikoagoa da Lehen Hezkuntzan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan baino; are gehiago, datuek adierazten dutenez, 10-11 urte ingururekin jotzen du goia fenomenoak [27]. Alde horretatik, badirudi adinak aurrera egin ahala murriztu egiten dela, haurren garapena dela-eta. Zehatzago esanda, beherakada hori ikasleen heldutasunaren eta garapen moralaren ondorio izan daiteke.

Hormonak: kortisola eta testosterona

Historikoki, zenbait hormona jokabide agresiboarekin lotu izan dira [22]. Alde horretatik, gehien ikertu diren hormonak testosterona eta kortisola izan dira. Testosterona (T) Hipotalamo-Hipofisi-Gonadal (HHG) ardatzaren azken hormona da, eta, batez ere mutiletan, rol garrantzitsua du jokabide agresiboa eta estatusa ulertzeko. Zehazki, populazio horretan testosterona altua jokabide agresiboarekin lotu izan da [6]. Bestalde, kortisola (K) Hipotalamo-Hipofisi-Adrenal (HHA) ardatzaren azken hormona da. Jazarpenari dagokionez, ikerketa batzuetan, nerabezaroaurrean kortisol-maila baxua izatea eskola-jazarpenarekin erlazionatu da [28]; aldiz, beste batzuetan kortisol altua lotu da jazarpenarekin [22, 29].

Harago joanda, ikusi da HHA eta HHG ardatzen artean elkarrekintzak daudela [28]. Hormona bikoitzaren hipotesiaren arabera, kortisol-mailek testosteronaren rola modulatzeko dute estatusari dagokion jokabideetan [6]. Dena den, emaitza kontraesankorrak aurkitu dira horri dagokionez; izan ere, batzuek T altua eta K baxua lotu dituzte eskola-jazarpenarekin [28]; beste batzuetan, ordea, T baxua eta K baxua edo T altua eta K altua lotu dira biktima edo erasotzaile izatearekin [6].

Hori azaltzeko arrazoiak Terburg-ek eta lankideek proposatu zituzten [30]. Autore horien arabera, kortisola jokabide-inhibizioarekin eta zigorrarekiko sentsibilitatearekin lotuta dago; testosterona, aldiz, jokabide-aktibazioarekin. Hori oinarri hartuta, T eta K baxua duten haurrek agresio-egoerak ekidingo dituzte, baina modu agresiboan erantzuneko dute zigorrarekiko sentsibilitate txikia duten heinean. Aldiz, T eta K altua esperientzia traumatikoei aurre egiteko konbinazioa izan daiteke: estresaren aurrean kortisola igotzen da, eta mehatxuari aurre egiteko testosterona; hor-taz, zentzuzkoa litzateke bi hormonon mailak altu izatea.

3.2. Arrisku- eta babes-faktore psikologikoak

Aldagai kognitiboak

Zenbait ezaugarri kognitibo izatea —jaiotzetikoak izan, edo ez— arrisku-faktore izan daiteke eskola-jazarpenean parte hartzeko [31]. Hain zuzen, hizkuntza- eta hizketa-nahasteak izatea arrisku-faktorea da biktima izateko [32]; baita ikaskuntza-zailtasunak [15] eta hezkuntza-behar bereziak [33] izatea ere. Horrez gain, neurogarapen-nahasteak izatea ere arrisku-faktorea da biktima izateko, batez ere Arreta Gabezia eta Hiperaktivitatearen Nahastea eta Autismo Espektroko Nahastea dituzten haurren kasuan [34].

Gaitasun sozialak

Era berean, gaitasun sozial urriak bullyingaren hiru rolekin lotzen dira. Horrek zerikusia izan dezake arazo sozialen ebazpenarekin ere. Cook-ek eta lankideek egindako meta-analisiaren arabera [5], arazo sozialak ebazteko zailtasunak izan ohi dituzte erasotzaile, biktima eta erasotzaile-biktimek.

Adimen emozionala eta egokitzapen soziala

Emozioak identifikatzeko eta erregulatzeko moduak ere zeresan handia du jazarpenean. Adimen emozionala, hau da, norbere eta ingurukoen emozioei buruzko informazioa hauteman eta ulertzeko ahalmena [35] babes-faktorea da eskola-jazarpenean [16, 36, 37], egokitzapen soziala eta arazo ebazpen eraginkorra ahalbidetzen du-eta.

Horrez gain, jokabide- eta emozio-arazoak izatea ere arrisku-faktorea da [15], batez ere biktima izatearen kasuan [10, 38]. Jokabideak eta emozioak egokitzapen sozialerako beharrezkoak direnez, arazo barneratzaileak nahiz kanporatzaileak dituzten haur eta nerabeek harremanetan gatazka gehiago izateko arriskua dute.

Autoestimua

Cohen-en eta lankideen arabera [36], autoestimua (hau da, norberak bere buruari ematen dion balioa) babes-faktorea izan daiteke eskola-jazarpenera dagokionez. Izan ere, autoestimu altua duten pertsonen emozio positiboagoak bizi ohi dituzte eta egokitzapen altuagoa izan ohi dute. Ondorioz, ez dute agresibitatea erabiltzeko beharrik.

Enpatia

Enpatia funtsezkoa aldagaia da gainerakoak mintzeko jokabideak ulertzeko. Hain zuzen, Herbehereetako ikerketa batean ikusi zen eskola-

jazarpenean parte hartzen zuten haurrek elkarrekiko enpatia txikiagoa adierazten zutela [39]. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko ikerketa baten arabera, enpatia portaera agresiboaren inhibitzailea da [22]. Hor-taz, modu batera edo bestera, badirudi enpatia bullyingaren babes-fakto-rea dela.

Erresilientzia

Erresilientzia egoera estresagarriei modu eraikitzailean aurre egiteko modua da. Hala, ikusi da erresilientzia handiagoa duten haurrek ez dutela berdinekiko agresioa erabiltzen egoera estresagarriei aurre egiteko; are gehiago, babes sozialarekin lotzen da [36].

3.3. Arrisku- eta babes-faktore sozialak

Gizarteratze-prozesuekin lotutako aldagaiei dagokienez, oro har, ba-dirudi arau sozialak betetzea —hau da, gizartearentzat desiragarriak diren portaera eta ezaugarriak izatea— babes-faktorea dela. Aldiz, besteengandik bereizgarriak diren ezaugarriak izatea arrisku-faktorea litzateke [3].

3.3.1. Eskola-faktoreak

Bullyinga ikastetxeetan gertatzen den heinean, funtsezkoa da testui-guru horretako aldagaiak aztertzea. Era berean, eskola intereseko aldagaia da bullyinga ulertzeko, haurrek eta nerabeek berdinekin harremanak eraiki-tzen dituzten testuingurua baita, eta, horretaz gain, egoera estresagarri as-kori egin behar izaten diete aurre bertan [29]. Gainera, eskola haurren bi-garren testuinguru esanguratsuena izan ohi da, familiaren ondoren. Ildo horretan, ikusi da testuinguru soziohezitzaile horretan hainbat baldintzek eskola-jazarpena areagotu edo murriztu egin dezaketela.

Eskola-testuingurua

Ikastetxeetako giroa ikasleen arteko harremanetan, irakaslearen jarre-ran eta bizikidetzara-arauetan oinarritzen da, besteak beste. Zenbait ikerke-tetan, eskolako giroaren pertzepzio eskasa biktima izateko arrisku-faktore izatearekin lotu izan da [28]; baita, oro har, eskola-jazarpenaren prebalen-zia altuagoarekin [23] eta erasotzaile gehiagorekin ere [37].

Horrez gain, ikasgelaren tamainari edo ikasle kopuruari dagokionez, emaitza kontrajarriak daude: ikerketa batzuen arabera, eskola-jazarpena ohikoagoa da gela txikietan, jokabide agresiboaren kontzientzia handiagoa delako eta desberdina den oro gehiago nabarmentzen delako [23, 40]; beste batzuen arabera, ordea, gela handietan gehiago gertatzen da [23], ikasgela handietan gainbegiraketa gutxiago egon ohi delako.

Ikasleen hierarkiari dagokionez, badirudi jazarpen gehiago egon ohi dela hierarkia eta estatusa nabarmenagoak diren testuinguru soziohezitzaileetan [23, 37]. Izan ere, testuinguru horiek lehiakorrangoak izan ohi dira, eta jokabide agresiboa baliatzen dute estatusa lortzeko.

Babes soziala eta irakasleen rola

Eskola-testuinguruan eragile esanguratsuenak dira ikaskideak eta irakasleak. Hain zuzen, Espainiako haurrekin egindako zenbait ikerketetan ikusi da berdinekin harreman sendoak izatea babes-faktorea dela eskola-jazarpenari dagokionez, bai erasotzaile, bai biktima, bai erasotzaile-biktima izateko [10, 29, 40]. Izan ere, jakina da babes soziala ezbeharrei aurre egiteko baliabidea dela, eta, beraz, berdinekin harreman asegarriak izateak egoera horiek ekiditea ahalbidetzen du.

Bestalde, irakasleek ere eragina dute fenomenoan. Zehazki, babes-faktoreak dira irakasleen autoefikazia-pertzepzio altua eta lanarekiko asebetetzea [23, 40]. Gehiago esanda, haurrek hautematen badute irakasleek bullyingaren kontrako jarrera dutela, jazarpen gutxiago egon ohi da [23]. Gainera, ikasleekin harreman estua izatea ere babes-faktorea da [41].

3.3.2. Familia-faktoreak

Machimbarrenaren eta lankideen arabera [42], familia da sozializazioarako lehen testuingurua. Zehazki, jokatzeko eta elkarbizitzeko arauak ikasten dira familian, eta egokitzen sozialerako agentea da. Beste hitz batzuetan esanda, familia harreman-egitura bat den heinean, bertako dinamikek jokabide agresiboak areagotu edo gutxitu ditzakete [43].

Familia-estresa, gatazka eta indarkeria

Familian egoera estresagarriak bizitzea, oro har, jazarpenarako arriskuarekin lotu da [10, 28, 42, 44]. Era berean, familian indarkeria eta tratatu txarreko egoerak bizitzea arrisku-faktorea da, bai erasotzaile izateko [45], bai biktima izateko [15]. Bestalde, familia-giro egokia babes-faktorea da [10, 46]. Azkenik, gurasoen droga eta alkoholaren gehiegizko kontsumoa izatea eta delituzko jokaeren aurrekariak izatea arrisku-faktoreak dira eskola-jazarpenari dagokionez [46].

Familia-harremanak eta komunikazioa

Familia-harremanei eta komunikazioari dagokienez, gurasoen eta seme-alaben artean komunikazio eta konexio ona izateak bullyingean parte-hartzea prebenitzen du [28, 42]. Aldiz, familia ez-kohesionatua izatea eskola-jazarpenarako arrisku-faktorea da [15]. Izan ere, komunikazioak

egoera zail eta desatseginak ebazten lagundu dezake, eta, beraz, jazarpen-egoeretatik ihes egiten.

Horrez gain, bertako zein nazioarteko ikerketetan ikusi denaren arabera, gurasoekin harreman estua izatea babes-faktorea da bullyingari dagokionez [10, 41-43]. Izan ere, atxikimendu segurua izateak babesa eta laguntza ematen ditu, eta, dirudienez, hala jokabide egokiak ikasten dituzte haurrek, eta baita agresibitatea gutxitu ere.

Heziketa-estiloak, diziplina eta konpetentzia

Aurrez azaldutakoaz gain, gurasoen heziketa-estiloak ere zeresana du eskola-jazarpenean. Hain zuzen, ikerketa batzuen arabera, erasotzaile nahiz biktima izateko arrisku-faktore dira heziketa-estilo autoritarioa edo zigortzailea [15, 31, 42, 44] eta gainbabeslea [15, 42, 44]. Aldiz, heziketa-estilo demokratikoa izan duten haurrek agresiozko jokabide gutxiago azaltzeko joera dute [42].

Horrez gain, Euskal Herrian egindako beste ikerketa batean ikusi zen gurasoek seme-alaben hezkuntzan inplikazio txikia izatea erasotzaile izateko arrisku-faktorea dela [44]. Ildo horretatik, gurasoen gainbegiraketa falta biktima eta erasotzaile izatearekin lotu da; gehiegizko kontrola, berriz, biktimizazioarekin [42]. Hortaz, berebiziko garrantzia du gurasoak heziketan inplikatzekak nahiz haien babesa eta sostengua sentitzeak.

3.3.3. Komunitate-faktoreak

Komunitate-faktoreei dagokienez, ikusi da desabantaila kulturalak eta komunitatearen efikazia txikia —bizilagunen laguntzarik ez hautematea eta haiekiko loturarik ez sentitzea, esaterako— arrisku-faktore izan daitezkeela eskola-jazarpenaren biktima izateko [38]; aldiz, komunitateko partaide sentitzea faktore babeslea da biktima izateko [41]. Hori bat dator espero izandakoarekin; izan ere, auzokideekin harreman ona izateak haurrak gora-beherei aurre egiteko babes soziala duela adierazten du.

3.3.4. Maila sozioekonomikoa

Zenbait herrialdetan egindako ikerketetan ikusi denaren arabera, maila sozioekonomiko baxua izateak eskola-jazarpenean parte hartzeko arriskua areagotu dezake [4, 15, 23], bai erasotzaile izateko, bai biktima izateko. Izan ere, pobrezia beste hainbat aldagairekin lotuta dago; esaterako, aurreko belaunaldien hezkuntza-maila baxuarekin [38]. Hortaz, pentsa genezake maila sozioekonomiko baxukoa izateak beste aldagai batzuetan eragiten duela, eta horiek jazarpenean parte hartzeko arriskua areagotzen dutela.

3.3.5. Faktore sozialekin lotuta dauden beste aldagai batzuk

Sexu- eta genero-identitatea eta desiraren orientazioa

Ikusi da, oro har, gizartean gutxiengoak diren sexu- eta genero-identitatea eta orientazioa dituzten pertsonak eskola-jazarpenaren biktima izateko probabilitate handiagoa dutela [41, 47, 48]. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 13-17 urte artekoekin egindako ikerketa batean ikusi zen homosexualek eta bisexualek biktima izateko arrisku handiagoa zutela heterosexualek baino [49].

Jazarpen-objektu izateko arrazoi nagusiak pertsona horiekiko dagoen estigma, diskriminazioa eta errefusa izan daitezke [50]. Harago joanda, Eisenberg-en eta lankideen arabera [51], Gutxiengoaren Estresaren Teoriak azaltzen du fenomenoak: talde alboratuetan dauden pertsonen estimulu estresagarri gehiago eta babes sozial gutxiago izan ohi dituzte. Hortaz, baldintza horiek guztiek eskola-jazarpena jasateko arriskua areagotzen dute.

Obesitatea eta gainpisua

Obesitatea ahoratutakoaren eta gastu energetikoaren arteko desorekaren emaitza da. Zehazki, Espainian haur-obesitatearen prebalentzia % 17,3 da, eta gainpisuarena % 23,3 [52]; beraz, osasun publikoko arazo bilakatu da. Hainbat herrialdetan egindako ikerketen arabera, gainpisua edo obesitatea izatea eskola-jazarpenean biktima izateko arrisku-faktorea da [53, 54], baita erasotzaile edo erasotzaile-biktima izateko ere [31, 55].

Bestalde, hainbat ikerketetan ikusi da gainpisua duten mutilak biktima izateko zaurgarriagoak direla, nahiz eta neskengan ondorioak larriagoak izan [53, 54]. Jimeno-Martitegik eta lankideek proposatutako azalpenaren arabera [54], gizarteak orokorrean gainpisua duten emakumeak gizonak baino maizago eta gehiago zigortzen ditu, haien irudiari ematen zaion garrantzia dela medio. Hala, esan daiteke emakumezkoetan estigma eta presio soziala handiagoak direla, eta, beraz, arrisku handiagoa dutela neskek autoestimu baxua, isolamendu soziala eta antzeko ondorio negatiboak pairatzeko.

Bizi-ohiturak eta ariketa fisikoa

Aurrez aipatutakoaz gain, ikusi da bizi-ohitura osasuntsuak izatea babes-faktorea dela biktimizazioari dagokionez; beste hitz batzuetan esanda, egunero gosaltzea, fisikoki aktiboa izatea eta kirol-taldeetan jolastea faktore babesleak dira biktimizazioaren aurrean [4].

Ildo horretatik, antzeko zerbait gertatzen da ariketa fisikoarekin. Zenbait ikerketen arabera, ariketa fisikoa egiteak biktima izateko aukerak gu-

txitzen ditu [4, 56]. Izan ere, jarduera horietan helduen gainbegiraketa egon ohi da, eta garapen psikosozialerako eta gaitasun sozialak eskuratzeko tes-tingurua izan ohi da.

4. ONDORIOAK ETA ETORKIZUNENKAK

Agerikoa da gaiaren konplexutasuna, eta, ildo horretatik, lan honekin eskola-jazarpenaren hurbilpena egin nahi izan da, eskola-jazarpenean eragin dezaketen arrisku- eta babes-faktoreak identifikatuta. Dena den, jazarpenak haur eta nerabeengan duen inpaktuaren eta prebalentzia altuaren jakitun izanik, oraindik bide luzea dago egiteke ikerketan, prebentzioan eta esku-hartzean.

Horrez gain, hainbat mugarekin egin dugu topo lan honetan. Bate-rik, eskola-jazarpen tradizionalera mugatu garen heinean, gaur egun in-paktu handia duen beste fenomeno bat alboratu egin dugu: ziberjazar-pena. Izan ere, teknologien garapena eta hurrek eta nerabeek duten erabilpena kontuan hartuta, askotan eskola-jazarpena eta ziberjazarpena gainjarri egiten dira [7]. Hortaz, datozen ikerketetan interesgarria litzateke bi jazarpen moten prebalentzia eta atzean dauden aldagaiak azter-tzea.

Bestetik, literaturaren berrikuspena egitean, ohartu gara batez ere bikti-maren rola eta arrisku-faktoreak izan direla ikergai, eta, beraz, informazio gutxiago dagoela babes-faktoreen eta erasotzaile rola gainean. Horrek, noski, prebentzioa eta esku-hartzea zailtzen ditu, fenomenoaren ikuspegi mugatua baitugu.

Azkenik, eskola-jazarpenaren gaineko ikerketetan hutsune metodo-logiko bat topatu dugu. Hain zuzen, haur eta nerabeen parte-hartzea eba-luatzeko baliozkotu gabeko galdetegiak eta autoinformeak erabili dira kasu askotan. Hala, nahiko mugatuak dira galdera bakarraren eta infor-matzaile bakarraren bidez jasotako datuen baliozkotasuna eta fidagarri-tasuna.

Bestalde, literaturaren berrikuspen horrek bide ugari ireki ditu ikerketa-lerro honetan. Izan ere, eskola-jazarpenari buruz orain arte egin diren iker-keta ugari aztertuta eta bertan inplikaturik dauden arrisku- eta babes-fakto-reak identifikatuta, hainbat erronka daude etorkizunera begira.

Lehenik, interesgarria litzateke luzerako ikerketa-diseinuak erabiltzea, baita kohorte-diseinuak erabiltzea ere. Izan ere, ikerketa-diseinuaren ara-bera, zaila da eskola-jazarpenean inplikaturik dauden aldagaietan kausa-ondorio harremanak ezartzea. Beste hitz batzuetan esanda, nahiz eta iker-keketan arrisku- edo babes-faktoretzat jo, ez dakigu aldagai horiek eragin duten bullyinga edo haren ondorioz sortu diren. Era berean, bizi-esperien-

tziak metatu egiten dira, eta, beraz, gertaera edo aldagai isolatuek ezin dute azaldu portaera bat [19]; hau da, askotan, zenbait arrisku-faktoreren elkarrekintzak azaltzen du eskola-jazarpena. Horregatik guztiagatik, luzerako ikerketa-diseinuak erabiltzeak kausazko harremanak ezartzea eta gertaeren elkarrekintzak aztertzeak aukera emango lituzke, eta horrek bullyingaren hurbilpen errealistagoa egitea ahalbidetuko luke.

Bigarrenik, beharrezkoa da neurketa-tresnak sendotzea. Izan ere, komenigarria da baliozkotutako tresnak ezagutarazi eta erabiltzea, neurketa ahalik eta objektiboena eta fidagarriena izan dadin. Gainera, tresna ugari dago eskuragarri; horren adibide dira Olweus-en Erasotzaile/Biktima Galdetegia [57], Europako Proiektuaren Galdetegiaren Bertsio Triangulatu [58] eta euskarazko bertsioa duen ISEI-IVEIren galdetegia [27].

Azkenik, interesgarria litzateke bildutako ezagutza hori guztia prebentzio nahiz esku-hartze programetan aplikatzea. Ildo horretatik, beharrezkoa da programa horietan biktimez gain behatzaile eta erasotzaileak kontuan hartzea, funtsezkoak baitira jazarpenaren dinamika hautsi ahal izateko. Era berean, nahiz eta gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida bat egon [59], gida horretan arrisku-eta babes-faktoreak gehitzeak kasuen identifikazioa erraztuko luke. Horrek, era berean, prebalentzia eta eragina gutxitzeko programa zehatzagoak diseinatu eta aplikatzea ahalbidetuko luke. Hain zuzen, bullyingean eragiten duten aldagaiak kontuan izanda, arrisku-faktoreak identifikatu eta esku hartu daiteke, baita prebenitzeko babes-faktoreak sustatu ere. Era berean, gidak dagoeneko urte batzuk dituen, interesgarria litzateke azken urteotako aurkikuntzak aplikatuta eguneratzea.

Begi-bistakoa da giza portaera gertakizun eta eragin konplexuek osatzen dutela. Gizakia etengabeko elkarrekintzan dago, bai berak dituen osagaiekin, bai ingurunearekin. Lan hau giza portaeraren zati txiki baina konplexu bat azaltzen ahalegindu da. Eskola-jazarpena suizidioaren eragile garrantzitsuenetarikoa da nerabeetan [3, 13], eta eragin zuzena du gure haur eta nerabeen osasun mentalean. Horregatik, behar-beharrezkoa da gaiaren gainean zorrotzasunez ikertzea.

BIBLIOGRAFIA

- [1] OLWEUS, D. 2013. «School bullying: Development and some important challenges». *Annual Review of Clinical Psychology*, **9**, 751-780. DOI: 10.1146/annurev-clinpsy-050212-185516
- [2] OLWEUS, D. 1997. «Bully/victim problems in school: Facts and intervention». *European Journal of Psychology of Education*, **12(4)**, 495-510. DOI: 10.1007/BF03172807

- [3] MERRILL, R. M., HANSON, C. L. 2016. «Risk and protective factors associated with being bullied on school property compared with cyberbullied». *BMC Public Health*, **16**, DOI: 10.1186/s12889-016-2833-3.
- [4] CASTAÑEDA-VÁZQUEZ, C., MORENO-ARREBOLA, R., GONZÁLEZ VALERO, G., ZURITA ORTEGA, F. 2020. «Posibles relaciones entre el bullying y la actividad física: una revisión sistemática». *Journal of Sport and Health Research*, **12(1)**, 94-111.
- [5] COOK, C. R., WILLIAMS, K. R., GUERRA, N. G., KIM, T. E., SADEK, S. 2010. «Predictors of Bullying and Victimization in Childhood and Adolescence: A Meta-analytic Investigation». *School Psychology Quarterly*, **25(2)**, 65-83. DOI: 10.1037/a0020149
- [6] CALVETE, E., ORUE, I. 2023. «Do testosterone and cortisol levels moderate aggressive responses to peer victimization in adolescents?». *Development and Psychopathology* 1-12. DOI: 10.1017/s0954579422001456
- [7] LAZURAS, L., BARKOUKIS, V., TSORBATZOU, H. 2017. «Face-to-face bullying and cyberbullying in adolescents: Trans-contextual effects and role overlap». *Technology in Society*, **48**, 97-101. DOI: 10.1016/j.techsoc.2016.12.001
- [8] MACHIMBARRENA, J. M., GARAIGORDOBIL, M. 2018. «Prevalence of Bullying and Cyberbullying in the Last Stage of Primary Education in the Basque Country». *Spanish Journal of Psychology*, **21**, 1-10. DOI: 10.1017/sjp.2018.41
- [9] GARCÍA-GARCÍA, J., ORTEGA, E., DE LA FUENTE, L., ZALDÍVAR, F., GIL-FENOY, M. J. 2017. «Systematic Review of the Prevalence of School Violence in Spain». *Procedia-Social and Behavioral Sciences*, **237**, 125-129. DOI: 10.1016/j.sbspro.2017.02.052
- [10] BABARRO, I., ANDIARENA, A., FANO, E., LERTXUNDI, N., VRIJHEID, M., JULVEZ, J., BARRETO, F. B., FOSSATI, S., IBARLUZEA, J. 2020. «Risk and protective factors for bullying at 11 years of age in a spanish birth cohort study». *International Journal of Environmental Research and Public Health*, **17(12)**, 1-19. DOI: 10.3390/ijerph17124428
- [11] FEIJOO, S., O'HIGGINS-NORMAN, J., FOODY, M., PICHEL, R., BRANA, T., VARELA, J., RIAL, A. 2021. «Sex differences in adolescent bullying behaviours». *Psychosocial Intervention*, **30**, 95-100.
- [12] HEZKUNTZA, ZIENTZIA ETA KULTURARAKO NAZIO BATUEN ERAKUNDEA. 2021. «Más allá de los números: Poner fin a la violencia y el acoso en el ámbito escolar». Hemen eskuragarri: <https://redined.educacion.gob.es/xmlui/bitstream/handle/11162/216267/Mas.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- [13] BHATIA, R. 2023. «The impact of bullying in childhood and adolescence». *Current Opinion in Psychiatry*, **36(6)**, 461-465. DOI: 10.1097/YCO.0000000000000900
- [14] MENKEN, M. S., RODRIGUEZ RIVERA, P. J., ISAIAH, A., ERNST, T., CLOAK, C. C., CHANG, L. 2023. «Longitudinal alterations in brain morphometry mediated the effects of bullying victimization on cognitive development in pre-adolescents». *Developmental Cognitive Neuroscience*, **61**, DOI: 10.1016/j.dcn.2023.101247.

- [15] ARROYAVE SIERRA, P. 2012. «Factores de vulnerabilidad y riesgo asociados al bullying Vulnerability and risk factors associated with bullying». *Revista CES Psicología*, **5(1)**, 116-125.
- [16] LEÓN-DEL-BARCO, B., LÁZARO, S. M., POLO-DEL-RÍO, M. I., LÓPEZ-RAMOS, V. M. 2020. «Emotional intelligence as a protective factor against victimization in school bullying». *International Journal of Environmental Research and Public Health*, **17(24)**, 1-11. DOI: 10.3390/ijerph17249406
- [17] ARMITAGE, R. 2021. «Bullying in children: Impact on child health». *BMJ Paediatrics Open*, **5**, DOI: 10.1136/bmjpo-2020-000939.
- [18] LE MENESTREL, S. 2020. «Preventing bullying: Consequences, prevention, and intervention». *Journal of Youth Development*, **15(3)**, 8-26. DOI: 10.5195/jyd.2020.945
- [19] MELCHERT, T. P. 2020. *Foundations of Health Service Psychology: An Evidence-Based Biopsychosocial Approach*. Elsevier, Wisconsin.
- [20] ENGEL, G. L. 1977. «The Need for a New Medical Model: A Challenge for Biomedicine». *Science*, **196**, 129-136. DOI: 10.1126/science.847460
- [21] BERMAN, M. E. 1997. «Biopsychosocial approaches to understanding human aggression: the first 30 years». *Clinical Psychology Review*, **17(6)**, 585-588.
- [22] PASCUAL SAGASTIZABAL, E., AZURMENDI IMAZ, A., DEL PUERTO, N., SANCHEZ MARTIN, J. R. 2018. «Eskola-adineko neska-mutilen portaera agresiboaren azterketa psikobiologikoa». *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **105**, 27-45. DOI: 10.26876/uztaro.105.2018.2
- [23] SAARENTO, S., GARANDEAU, C. F., SALMIVALLI, C. 2015. «Classroom- and school-level contributions to bullying and victimization: A review». *Journal of Community and Applied Social Psychology*, **25(3)**, 204-218. DOI: 10.1002/casp.2207
- [24] MANDIRA, M. R., STOLTZ, T. 2021. «Bullying risk and protective factors among elementary school students over time: A systematic review». *International Journal of Educational Research*, **109**, DOI: 10.1016/j.ijer.2021.101838.
- [25] BOEL-STUDT, S., RENNER, L. M. 2013. «Individual and familial risk and protective correlates of physical and psychological peer victimization». *Child Abuse and Neglect*, **37**, 1163-1174. DOI: 10.1016/j.chiabu.2013.07.010
- [26] SMITH, P. K. 2016. «Bullying: Definition, Types, Causes, Consequences and Intervention». *Social and Personality Psychology Compass*, **10(9)**, 519-532. DOI: 10.1111/spc3.12266
- [27] IRAKAS SISTEMA EBALUATU ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA (ISEI-IVEI). 2020. «Ikaskideen arteko tratatu txarrak. BULLYING 2020». Hemen eskuragarri: https://isei-ivei.euskadi.eus/documents/d/guest/ikerbul20_txostena_eus_2020urriak19?imagePreview=1
- [28] BABARRO, I., ANDIARENA, A., FANO, E., GARCÍA-BAQUERO, G., LEBEÑA, A., ARRANZ-FREIJO, E. B., IBARLUZEA, J. 2022. «Do prepubertal hormones, 2D:4D index and psychosocial context jointly explain 11-year-old pre-

- adolescents' involvement in bullying?». *Biological Psychology*, **172**, DOI: 10.1016/j.biopsycho.2022.108379.
- [29] BABARRO, I., IBARLUZEA, J., THEODORSSON, E., FANO, E., LEBEÑA, A., GUXENS, M., SUNYER, J., ANDIARENA, A. 2023. «Hair cortisol as a biomarker of chronic stress in preadolescents: influence of school context and bullying». *Child Neuropsychology*, **29(5)**, 742-759. DOI: 10.1080/09297049.2022.2115991
- [30] TERBURG, D., MORGAN, B., VAN HONK, J. 2009. «The testosterone-cortisol ratio: A hormonal marker for proneness to social aggression». *International Journal of Law and Psychiatry*, **32(4)**, 216-223. DOI: 10.1016/j.ijlp.2009.04.008
- [31] CHOW, A. R. W., PINGAULT, J. B., BALDWIN, J. R. 2023. «Early risk factors for joint trajectories of bullying victimisation and perpetration». *European Child and Adolescent Psychiatry*, **32(9)**, 1723-1731. DOI: 10.1007/s00787-022-01989-6
- [32] LEBRUN-HARRIS, L. A., SHERMAN, L. J., LIMBER, S. P., MILLER, B. D., EDGERTON, E. A. 2019. «Bullying Victimization and Perpetration among U.S. Children and Adolescents: 2016 National Survey of Children's Health». *Journal of Child and Family Studies*, **28(9)**, 2543-2557. DOI: 10.1007/s10826-018-1170-9
- [33] SCHÜTZ, J., SCHIPPER, N., KOGLIN, U. 2022. «Bullying in school and cyberbullying among adolescents without and with special educational needs in emotional-social development and in learning in Germany». *Psychology in the Schools*, **59(9)**, 1737-1754. DOI: 10.1002/pits.22722
- [34] TÖRN, P., PETTERSSON, E., LICHTENSTEIN, P., ANCKARSÄTER, H., LUNDSTRÖM, S., HELLNER GUMPERT, C., LARSSON, H., KOLLBERG, L., LÄNGSTRÖM, N., HALLDNER, L. 2015. «Childhood neurodevelopmental problems and adolescent bully victimization: population-based, prospective twin study in Sweden». *European Child and Adolescent Psychiatry*, **24(9)**, 1049-1059. DOI: 10.1007/s00787-014-0658-0
- [35] SALOVEY, P., MAYER, J. D. 1989. «Emotional intelligence». *Imagination, Cognition and Personality*, **9(3)**, 185-211. DOI: 10.2190/dugg-p24e-52wk-6cdg
- [36] COHEN, E., ESHEL, Y., KIMHI, S., KURMAN, J. 2021. «Individual Resilience: A Major Protective Factor in Peer Bullying and Victimization of Elementary School Children in Israel». *Journal of Interpersonal Violence*, **36(19-20)**, 8939-8959. DOI: 10.1177/0886260519863192
- [37] FARRELL, A. H., VAILLANCOURT, T. 2022. «Childhood Predictors of Adolescent Joint Trajectories: A Multi-Informant Study on Bullying Perpetration and Hypercompetitiveness». *Journal of Clinical Child and Adolescent Psychology*, **51(6)**, 1011-1023. DOI: 10.1080/15374416.2021.1923019
- [38] IYANDA, A. E. 2022. «Bullying Victimization of Children with Mental, Emotional, and Developmental or Behavioral (MEDB) Disorders in the United States». *Journal of Child & Adolescent Trauma*, **15(2)**, 221-233. DOI: 10.1007/s40653-021-00368-8

- [39] VAN NOORDEN, T. H. J., CILLESSEN, A. H. N., HASELAGER, G. J. T., LANSU, T. A. M., BUKOWSKI, W. M. 2017. «Bullying Involvement and Empathy: Child and Target Characteristics». *Social Development*, **26(2)**, 248-262. DOI: 10.1111/sode.12197
- [40] ROMERA, E. M., ORTEGA-RUIZ, R., SKRZYPIEC, G., ZUKAUSKIENE, R. 2019. «Editorial: Analysing Psychosocial and Contextual Factors Underpinning Bullying and Cyberbullying». *Frontiers in Psychology*, **10**, DOI: 10.3389/fpsyg.2019.02602.
- [41] HONG, J. S., VALIDO, A., RIVAS-KOEHL, M. M., WADE, R. M., ESPELAGE, D. L., VOISIN, D. R. 2021. «Bullying victimization, psychosocial functioning, and protective factors: Comparing African American heterosexual and sexual minority adolescents in Chicago's Southside». *Journal of Community Psychology*, **49(5)**, 1358-1375. DOI: 10.1002/jcop.22521
- [42] MACHIMBARRENA, J. M., GONZÁLEZ-CABRERA, J., GARAIGORDOBIL, M. 2019. «Variables familiares relacionadas con el bullying y el cyberbullying: una revisión sistemática». *Pensamiento Psicológico*, **17(2)**, 37-56. DOI: 10.11144/javerianacali.ppsi17-2.vfrb
- [43] URRESTI-PADRÓN, I., FELICIANO-GARCÍA, L., SANTANA-VEGA, L. E. 2021. «Acoso escolar y apego familiar: la perspectiva del alumnado agresor». *Educatio Siglo XXI*, **39(2)**, 325-344. DOI: 10.6018/educatio.409251
- [44] GARAIGORDOBIL, M., MACHIMBARRENA, J. M. 2017. «Stress, competence and parental educational styles in victims and aggressors of bullying and cyberbullying». *Psicothema*, **29(3)**, 335-340. DOI: 10.7334/psicothema2016.258
- [45] DE OLIVEIRA, W. A., SILVA, M. A. I., DA SILVA, J. L., DE MELLO, F. C. M., DO PRADO, R. R., MALTA, D. C. 2016. «Associations between the practice of bullying and individual and contextual variables from the aggressors' perspective». *Jornal de Pediatria*, **92(1)**, 32-39. DOI: 10.1016/j.jped.2015.04.003
- [46] VALDÉS CUERVO, Á. A., CARLOS MARTÍNEZ, E. A., TORRES ACUÑA, G. M. 2012. «Diferencias en la situación socioeconómica, clima y ajuste familiar de estudiantes con reportes de bullying y sin ellos». *Psicología desde el Caribe*, **29(3)**, 616-631.
- [47] MITTLEMAN, J. 2019. «Sexual Minority Bullying and Mental Health From Early Childhood Through Adolescence». *Journal of Adolescent Health*, **64(2)**, 172-178. DOI: 10.1016/j.jadohealth.2018.08.020
- [48] GIROUARD, A., DION, J., BÖTHE, B., O'SULLIVAN, L., BERGERON, S. 2021. «Bullying Victimization and Sexual Wellbeing in Sexually Active Heterosexual, Cisgender and Sexual/Gender Minority Adolescents: The Mediating Role of Emotion Regulation». *Journal of Youth and Adolescence*, **50(11)**, 2136-2150. DOI: 10.1007/s10964-021-01471-7
- [49] LARRAIN, E., GARAIGORDOBIL, M. 2020. «El Bullying en el País Vasco: Prevalencia y Diferencias en Función del Sexo y la Orientación-Sexual». *Clinica y Salud*, **31(3)**, 147-153. DOI: 10.5093/CLYSA2020A19

- [50] STROEM, I. F., GOODMAN, K., MITCHELL, K. J., YBARRA, M. L. 2021. «Risk and Protective Factors for Adolescent Relationship Abuse across Different Sexual and Gender Identities». *Journal of Youth and Adolescence*, **50(8)**, 1521-1536. DOI: 10.1007/s10964-021-01461-9
- [51] EISENBERG, M. E., GOWER, A. L., MCMORRIS, B. J., RIDER, G. N., COLEMAN, E. 2019. «Emotional Distress, Bullying Victimization, and Protective Factors Among Transgender and Gender Diverse Adolescents in City, Suburban, Town, and Rural Locations». *Journal of Rural Health*, **35(2)**, 270-281. DOI: 10.1111/jrh.12311
- [52] ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO ETA NUTRIZIORAKO ESPAINIAKO AGENTZIA. 2020. «Estudio Aladino 2019: Estudio Sobre Alimentación, Actividad Física, Desarrollo Infantil y Obesidad En España 2019». Hemen eskuragarri: https://www.aesan.gob.es/AECOSAN/docs/documentos/nutricion/observatorio/Informe_Aladino_2019.pdf
- [53] CHENG, S., KAMINGA, A. C., LIU, Q., WU, F., WANG, Z., WANG, X., LIU, X. 2022. «Association between weight status and bullying experiences among children and adolescents in schools: An updated meta-analysis». *Child Abuse and Neglect*, **134**, DOI: 10.1016/j.chiabu.2022.105833.
- [54] JIMENO MARTITEGI, A., BIURRUN ASCUNCE, O., GARCIA ZABALLA, U., PEREDA PEREDA, E. 2022. «Obesitatea eta eskola-jazarpena haurtzaroan eta nerabezaroan: berrikuspen sistematikoa». *Uztaro. Giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, **122**, 121-148. DOI: 10.26876/uztaro.122.2022.7
- [55] RUPP, K., MCCOY, S. M. 2019. «Bullying perpetration and victimization among adolescents with overweight and obesity in a nationally representative sample». *Childhood Obesity*, **15(5)**, 323-330. DOI: 10.1089/chi.2018.0233
- [56] GARCIA-HERMOSO, A., ORIOL-GRANADO, X., CORREA-BAUTISTA, J. E., RAMÍREZ-VÉLEZ, R. 2019. «Association between bullying victimization and physical fitness among children and adolescents». *International Journal of Clinical and Health Psychology*, **19(2)**, 134-140. DOI: 10.1016/j.ijchp.2019.02.006
- [57] OLWEUS, D. 2006. «Revised Olweus Bully/Victim Questionnaire (OBVQ)». *APA PsycTests*. DOI: 10.1037/t09634-000
- [58] GONZÁLEZ-CABRERA, J., SÁNCHEZ-ÁLVAREZ, N., CALVETE, E., LEÓN-MEJÍA, A., ORUE, I., MACHIMBARRENA, J. M. 2020. «Psychometric properties of the triangulated version of the European Bullying Intervention Project Questionnaire: Prevalence across seven roles». *Psychology in the Schools*, **57(1)**, 78-90. DOI: 10.1002/pits.22320
- [59] EUSKO JAURLARITZA. 2015. «Eskola Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jarduteko Gida». Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hezkuntza_ikuskaritza_dok_batx/eu_def/adjuntos/ESKOLA_JAZARPENA_GIDA_OSOA.pdf